

TRONTZA

JOKOAREN OINARRIA

Joo honetan, neurri zehatzetako enborrak trontza bidez ahalik eta lasterren ebaki behar dira.

EGURRAREN EZAUGARRIAK

1.art.- Ez bada aurrez esaten bestelako zuhaitz-enborrak erabiliko direla, enborrak pago-enborrak izango dira, eta jokalekura azal eta guzti ekarriko dira, hau posible den kasuetan. Enborrok azalik ez izatea ere ontzat hartuko da, azal hori mendian, enborrak tarrasean eraman izateagatik galdu bada, edo garraio-lanak direla medio. Enborrek begirik, pitzadurarik, akats edo okerrik badute, neurri ego-kia ematerakoan joan egin beharko dira.

2.art.- Enborrak ateratzeko ebaki diren zuhaitzok, berriki ebakiak beharko dute izan. Beraz, enborrak berriak izan beharko dira, berdeak.

3.art.- Enborren kanpoko neurriak, gerribuelitari dagokionez, beharrezkoak izango dira, behin zati obalatuak, akatsak edo okerrak zuzendu ondoren, dagokien neurrian gelditu daitezten.

4.art.- Enborren luzera eta gerribuelta, behin enborrak jarri ondoren, honako koadro honen arabera izango dira:

Enborren gerribuelta:	
Ontzatan	Metrotan
36"	0,835
45"	1,043
54"	1,252
60"	1,391
72"	1,669
80"	1,855
108"	2,504

Enborren luzera: 60 zentimetrotakoak izango dira, bai etzanda daudela, bai zutik.

Enborrak gehiegi obalatzeari saihesteko, gerribueltan %6ko tolerantzia emango da, bai beheantze, bai gorantz. Ondorioz, enborren edozein gerribuelta ondoko neurriotan sartu beharko da:

Onarturiko tolerantzia				
Enborren neurria:	Gerribuelta zehatza:	Gutxienezko gerribuelta:	Gehienezko gerribuelta:	Diferentzia:
36"	26,6	25,0	28,2	3,2
45"	33,2	31,2	35,2	4,0
54"	39,8	37,4	42,2	4,8
60"	44,3	41,6	47,0	5,4
72"	53,1	49,9	56,3	6,4
80"	59,0	55,4	62,6	7,2
108"	79,7	74,9	84,5	9,6

5.art.- Enborrak doitzean, beharko luketena baino txikiago geldituko balira, enborrak gerribueltan zentimetro 1 edo 2 gutxiago dutela, ontzat emango dira, beti ere enbor-multzo bereko beste batzuek (txikiago gelditu diren enborren kopuru bera), sobera badute hauei falta zaiena.

Enborrak prestatzen direnean, hauek leun eta ezpal askerik gabe utziko dira.

6.art.- Proba hasteko iragarritako ordua baino 24 ordu arinago, enborrak Federazioaren eta kirolarien esku egongo dira.

Federazioak esango du, bertara azaltzean, enborrak egokiak diren edo atzera bota behar diren. Atzera bota behar izanez gero, interesatuek enbor berriak ekarri beharko dituzte atzera botatakoen orde, gehienez ere 6 orduko epean, une horretatik hasita.

Enborrak bere lekuan jarrita daudela eta federazioko agintariak bere oniritzia eman ondoren, antolatzaileek zaindu beharko dituzte enborrak proba hasi arte.

7.art.- Egurra ohi bezala ekarri beharko da plazara. Esan nahi baita, zuhaitzak ebaki ondoren ezin izango zaie enborrei era artifizialean beroa, hotza, likidoak, eta abar... eman, enborrok gogortzeko edo biguntzeko. Enborrok ipurdian marka ezabaezin bat izango dute.

ENBORRAK NOLA JARRI BEHAR DIREN EUSKADIKO TXAPELKETETAN

8.art.- Etzanda dauden enborrak neurri jakin batean ebaki beharko dira. Zutik daudenak, bitan.

- Lurraren eta enborraren azpiko aldearen arteko distantzia etzandakoan eta gehienezko altuera zutikako ebaketan libreak izango dira.
- Enborra zutik dagoela: 15 zentimetrotako ebakitze-tolerantzia izango du, eta 5 zentimetro sobera enborraren goiko aldetik.
- Bai etzandako ebaketan, bai zutikakoan, ebaketen arteko distantzia 2,5zentimetrotako aizango da gehienez.

Ebaketan, goiko aldetik pasatzen bada, baliogabekoa izango da ebaketa hori. Bere multzoari ez dagokion beheko aldean ebakitzen hasten bada, lehiaketatik kanpo geldituko da.

Ebakitako zatia gerri buelta osokoa bada, baliokoa dela ulertuko dugu.

Ebakitzen ari diren bitartean, gurpila apurtzen bada, gerri buelta osokoa atereaz gero, baliokoa dela ulertuko dugu.

EUSKADIKO TXAPELKETAK

9. art.- Gizonezkoen eta emakumezkoen txapelketa hiru fasetan egingo da:

SAILKAPEN PROBA urtero egingo da izena ematen duten bikote guztiekin

1. MAILAKO FINALA, sailkapen-probako lehenengo 6 bikoteekin. 6 bikoteek aldi berean moztuko dute.

2. MAILAKO FINALA, sailkapen-probako gainerako bikoteekin.

Mota guztietako trontzak onartuko dira txapelketaren fase guztietan

10.art.- Kirolari bakoitzak bere astoa eramango du eta plazan, Epailearen aurrean aurkeztu beharko du jokaldia hasi baino ordu bete arinago.

11.art.- Emakumezkoen txapelketetako lana: 45 ontzako 10 ebaketa bertikal egin beharko dira. (enborra horizontalean)

12.art. - Mistoko txapelketetako lana: 45 ontzako 15 ebaketa bertikal egingo beharko dira (enborra horizontalean).

13.art.- Gizonezkoen txapelketetako lana:

Sailkatzailea:

45 ontzako 5 ebaki bertikal (enborra horizontalean).

45 ontzako 5 ebaki horizontal (enborra bertikalean).

45 ontzako 5 ebaki bertikal (enborra horizontalean).

1. mailako finala:

60 ontzako 5 ebaki bertikal (enborra horizontalean).

54 ontzako 6 ebaki horizontal (enborra bertikalean).

54 ontzako 6 ebaki bertikal (enborra horizontalean).

60 ontzako 5 ebaki bertikal (enborra horizontalean).

2. mailako finala:

sailkapen orokorrean egiten den lan bera.